**2021EKO UZTAILAREN 1EAN GOBERNU BATZARRAKEGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA**

**ACTA DE LA SESION CELEBRADA POR LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EL 1 DE JULIO DE 2021**

**MODUA**: Presentzialki
**TOKIA**: Batzar aretoa
**EGUNA**: Bata
**HILABETEA**: Uztaila.
**URTEA**: Bi mila eta hogeita bat.
**HASIERAKO ORDUA**: Arratsaldeko seiak eta erdi
**BATZARRALDIAREN IZAERA**: Ohikoa
**DEIALDIA**: Lehena
**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA**: Bost (5)

**MEDIO:** Presencial
**LUGAR**: Salon de Plenos
**DIA**: Uno
**MES**: Julio
**AÑO**: Dos mil veintiuno
**HORA DE COMIENZO**: Dieciocho horas y treinta minutos.
**CARACTER DE LA SESION**: Ordinaria.
**CONVOCATORIA**: Primera
**NUMERO DE MIEMBROS QUE LA COMPONEN**: Cinco (5)

**MAHAIBURUA/PRESIDENTA**:
Leire Artola Ugalde (EAJ-PNV)

**BILDUAK/REUNIDOS**:
Adur Ugartemendia Leunda (EAJ-PNV)
Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu)
Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

**ETORRI GABEA/AUSENTE**:
Malu Valles Fernandez (EAJ-PNV)

**IDAZKARIA/SECRETARIA**:
ITZIAR AROZTEGUI APAOLAZA

**1.- AURREKO AKTA**. Aurreko aktaren onespena. 2021-05-27.

Aho batez onartu da.

**1.- ACTA ANTERIOR**. Aprobación del acta de 27-05-2021.

Se ha aprobado por unanimidad.

**2.- ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO PROPOSAMENA:**

ZERBITZUAK KONTRATATZEA. BALDINTZA PLEGUA ETA DEIALDI BERRIA EGITEA, GIZARTE-EKIMENEKO ENPLEGU-ZENTRO BEREZIETARA ETA ARAUTUTAKO BIRGIZARTERATZE-ENPRESETARA BIDERATUTAKO KOMUNITARIO ETA AGERI TOKIETAN ADIMEN DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEI GARATZE, FORMAZIO ETA

**2.- PROPUESTA DE LA COMISIÓN DE ORGANIZACIÓN:**

CONTRATACIÓN DE SERVICIOS. PLIEGO DE CONDICIONES Y CONVOCATORIA PÚBLICA PARA CONTRATAR EL PROGRAMA DE SENSIBILIZACION ORIENTADO A LA CIUDADANIA, CONSISTENTE EN IMPULSAR Y DAR LA OPORTUNIDAD DE DESARROLLO, FORMACIÓN Y PARTICIPACIÓN A PERSONAS

PARTEHARTZE AUKERA EMATEKO, HERRITAR GUZTIENTZAT BIDERATUTAKO SENTSIBILIZAZIO PROGRAMA. 2021PEBO0013

CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL EN LUGARES COMUNITARIOS Y VISIBLES RESERVADO A CENTROS ESPECIALES DE EMPLEO DE INICIATIVA SOCIAL Y EMPRESAS DE REINSERCIÓN REGULADAS.

Ezagutzera eman da Antolakuntza batzordeko proposamena, aipatutako zerbitzua kontratatzeko baldintza pleguak onartzea eta kontratazioa deialdi publiko irekiaren bidez egitea, ondorengo xehetasunekin:

Se da a conocer la propuesta de la Comisión de Organización de aprobar los pliegos de condiciones para la contratación del servicio de referencia y proceder a su contratación mediante convocatoria pública abierta con el siguiente detalle:

1.- *Prozedura*: irekia publizitatearekin. Lizitazio elektronikoa.
2.- *Izapidetzea*: arrunta
3.- *Sortak: EZ*
4.- *Lizitazio prezioa/ urteko*: 24.243,50 + BEZ
5.- *Egikaritze epea*: 2 urte
6.- *Luzatzeko aukera: 2 urte*
7.- *Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa:*

1.- *Procedimiento*: abierto con publicidad. Licitación electrónica.
2.- *Tramitación*: ordinaria
3.- *Lotes:* NO
4.- *Precio anual de licitación*: 24.243,50 + IVA
5.- *Plazo de ejecución*: 2 años
6.- *Posibilidad de prórroga:* 2 años
7.- *Solvencia económica y financiera:*

Urteko negozio bolumena kontratuak xede duen esparruan, eskuragarri dauden azken 3 ekitaldietako negozio bolumen handieneko urteari dagokionez, lizitatzailearen jardueren sorrera edo hasiera daten arabera eta eskaintzen aurkezpen daten arabera, 35.290,2 € izango da gutxienez. Zenbateko hori 87.3.a artikuluaren 2. paragrafoan adierazitako eran egiaztatuko da.

Volumen anual de negocios, en el ámbito al que se refiera el contrato, referido al mejor ejercicio dentro de los tres últimos disponibles en función de las fechas de constitución o de inicio de actividades del empresario y de presentación de las ofertas por importe igual o superior a 35.290,2 € acreditada de la manera indicada en el artículo 87.3.a.párrafo 2º.

8.- *Kaudimen teknikoa:*

8.- *Solvencia técnica:*

a) Gehienez azken hiru urteetan egindako zerbitzu edo lan nagusiak, zehazki kontratuaren xede direnen antzekoak. Zehaztu behar dira lan horien zenbatekoa, data eta hartzailea (publikoa edo pribatua).

a) Una relación de los principales servicios o trabajos realizados de igual o similar naturaleza que los que constituyen el objeto del contrato en el curso de, como máximo los tres últimos años, en la que se indique el importe, la fecha y el destinatario, público o privado de los mismos.

Kontratazio organoak emandako zerbitzuei dagozkion egiaztagiriak eska ditzake SPKL2017ren 90. artikuluak dioena jarraituz.

El órgano de contratación podrá requerir que se acrediten los servicios prestados mediante presentación de certificados expedidos de la manera señalada en el art. 90 de la LCSP2017.

Egindako zerbitzu edo lan nagusiak, kontratuaren xede direnen antzekoak diren ala ez jakin ahal izateko, plegu honetako 2. klausulan adierazitako CPV kodigoa da kontuan izan beharrekoa.

Para determinar si un servicio es de igual o similar naturaleza al que constituye el objeto del contrato, se deberá acudir al código CPV indicado en el apartado 2 de este cuadro de características, debiendo el servicio prestado por el licitador ser

Lizitatzaileak egindako zerbitzua adierazitako CPV kodigoaren barne hartuko da hau da: 85000000-9.

b) Esleipendunak beharrezko giza baliabide guztiak izango ditu, eta haren ardura izango dira langileekiko lan harremanak eta beste era batekoak, baita kontratuaren xedea ondo eta eraginkorki betetzeko egin beharko diren ordezkapenak ere.

Zerbitzuak emateari atxikitako pertsonek (bi pertsona estimatzen dira) adimen-ezgaitasuna izan beharko dute.

c) Enpresa kontratistak pertsona bat gutxienez izendatuko du koordinatzaile tekniko edo arduradun, eta haren bidez helaraziko zaio Beasaingo Udalari enpresa kontratistaren langileek kontratuaren xedeari lotuta egin nahi duten edozein komunikazio.

Pertsona honek, hizkuntza gaitasunarekiko, Europako Erreferentzia Markoaren B2 gaitasun maila izan beharko du, ahozko trebetasunean.

Azken xehetasun hau honela kreditatuko da:

-  Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzaren Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko den azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuak arautzen dituen titulu eta ziurtagiriak.
-  Edozein Euskaltegi homologatuak emandako agiria, karatula honetako 6. atalean eskatutako gaitasun-mailari buruzkoa.

Kontratista enpresa berria denean (hau da, bost urte baino gutxiagokoa), aurreko b) eta c) letran aipatzen diren bitarteko baten edo batzuen bidez egiaztatuko da kaudimen teknikoa, baina ez da inola ere aplikagarria izango artikulu horren a) letran zerbitzu kopuru jakin bat egin izanari buruz ezarrita dagoena.

*9.- Aurkezteko epea, lekua eta ordua: 15 egun kontratazio plataforman argitaratzen den hurrengo egunetik zenbatuta.*

comprensivo del código CPV indicado, esto es: 85000000-9

b) La adjudicataria dispondrá de todos los recursos humanos necesarios, siendo de su competencia la relación laboral o de otro tipo de dicho personal y las sustituciones del personal que pudieran ser necesarias para la correcta y eficaz prestación del objeto del contrato.

El personal adscrito a la prestación de los servicios ( se estiman dos personas) deberá presentar una discapacidad intelectual.

c) La empresa contratista deberá designar al menos una persona como coordinadora técnica o responsable a través de la cual se realizará la recepción y transmisión de cualquier comunicación que el personal de la empresa contratista deba realizar al Ayuntamiento de Beasain en relación con la ejecución del contrato.

Esta persona deberá tener en cuanto a competencia lingüística, el nivel de competencia B2 del Marco Europeo de Referencia, a nivel verbal. Esto último, se acreditará de alguna de las dos maneras siguientes:

-  Títulos y certificados regulados por Decreto 297/2010, de 9 de noviembre, de convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera y equiparación con los niveles Marco Común Europeo de referencia para las lenguas.
-  Certificado emitido por cualquier Euskaltegi homologado, del nivel de competencia exigido

Cuando el contratista sea una empresa de nueva creación, entendiendo por tal aquella que tenga una antigüedad inferior a cinco años, su solvencia técnica se acreditará por lo señalado en la letra b) sin que en ningún caso sea aplicable lo establecido en la letra a), relativo a la ejecución de un número determinado de servicios.

*9.- Plazo, lugar y hora para la presentación de prorposiciones: 15 días contados desde el día siguiente al de la publicación del anuncio de licitación del contrato en el perfil del contratante.*

*10.- Adjudikazio irizpideak*:

1. irizpidea, formula automatikoekin ebalua ezinak: 50 puntu.

Proposamen teknikoa: (50 puntu)

Atal honetan, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan balorazioa egiteko:

1) Egin beharreko jarduketen proiektu zehatza eta hura garatzeko erabiliko den metodologia.
2) Jarduketa bakoitzarekin lortu nahi diren helburuak.
3) Proiektua gauzatzen dela jarraitzea eta gainbegiratzea (zehaztea).
Udalaren eta enpresa esleipendunaren arteko harreman arina, iraunkorra eta jarraitua izateko komunikazio-bideak.

2017 SPKLko 146,3 artikuluaren arabera, hurrengo fasera pasatzeko gutxienez %50eko puntuazioa lortu beharko da.

2. irizpidea: formula automatikoen bidez ebaluatzen direnak: 50 puntu

Proposamen ekonomikoa: 50 puntu**.**

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

**3.- HERRITARRAK BATZORDEKO PROPOSAMENA**:

- EUSKARA HIZKUNTZA ERREFORTZU ZERBITZUA ETA KIROL ELKARTEEN ESPARRUAN EUSKARAREN ERABILERAREN SUSTAPEN ZERBITZUA. LEHENENGOA ESLEITZEA ETA BIGARRENA HUTSIK UZTEA. 2021ESEP0002

Ezagutzera eman da, kontratazio mahaiaren proposamena, hots:

*10.- Criterios de adjudicación:*

1ª fase: valoración de criterios no evaluables mediante fórmulas automáticas.

Propuesta técnica: (50 puntos)

Se tendrán en cuenta los siguientes aspectos para la valoración:

1) Proyecto detallado y conciso de las actuaciones a realizar y metodología a utilizar para su desarrollo.
2) Objetivos que se persiguen con cada una de las actuaciones.
3) Seguimiento y supervisión de la ejecución del proyecto (determinar).

Canales o vías de comunicación para mantener una relación fluida, permanente y continúa entre el Ayuntamiento y la empresa adjudicataria.

Umbral mínimo 50% para pasar a la siguiente fase (art. 146,3)

2ª fase: valoración de criterios mediante la aplicación de fórmulas automáticas.

Propuesta económica: hasta un máximo de 50 puntos

En el turno de intervenciones los asistentes se han mostrado de acuerdo con la propuesta.

En consecuencia, se ha aprobado la propuesta por unanimidad.

**3.- PROPUESTA DE LA COMISIÓN DE CIUDADANIA**:

- SERVICIOS DE REFUERZO LINGÜÍSTICO DEL EUSKARA Y FOMENTO DEL USO DEL EUSKERA EN EL ÁMBITO DE LAS ASOCIACIONES DEPORTIVAS. ADJUDICAR EL PRIMERO Y DEJAR DESIERTO EL SEGUNDO.

Se ha informado la siguiente propuesta de la mesa de contratación:

*“1.- Kontratazio Mahaiaren 2021-06-2ko bileran TTAKUN KULTUR ELKARTEA eta URTXINTXA ATSEDENALDIKO HEZITZAILEEN ESKOLA enpresak lizitazioan parte hartzea onartu zen.*

*2.- .- B kartazala (formula automatikoen bidez ebaluatuko ezin diren irizpideei dagokion dokumentazioa) gai horretan teknikoa den bokalari pasatu zitzaion aztertu eta ebaluatu ahal izateko.*

*3.- Txosten hori eginda, 2021-06-10ean egindako bileran edukiaren berri eman zen, eta Kontratazio Mahaiak on iritzia eman zion.*

***1.-** En la sesión de la Mesa de Contratación del 2-06-2021, se admitió a participar en la licitación a las empresas: TTAKUN KULTUR ELKARTEA eta URTXINTXA ATSEDENALDIKO HEZITZAILEEN ESKOLA.*

***2.-** Se pasó el sobre B (documentación relativa a criterios no evaluables mediante fórmulas automáticas), a estudio y evaluación del vocal técnico en la materia.*

***3.-** Emitido el mencionado informe, en la reunión celebrada con fecha 10-06-2021 se dio a conocer su contenido, al cual se le dio el visto bueno por parte de la Mesa de Contratación.*

| ***Irizpideak*** | ***TTAKUN KULTUR ELKARTEA*** | ***URTXINTA ATSEDENALDIKO HEZITZAILEEN ESKOLA*** |
|---|---|---|
| ***1.- Zerbitzua emateko jarraitu beharreko metodologia (15 puntu)*** | ***15*** | ***15*** |
| ***2.- Egin nahi den programa, hartzaileen adinak kontuan hartuta (15 puntu)*** | ***15*** | ***15*** |
| ***3.- Zerbitzua antolatzeko modua (10 puntu)*** | ***8*** | ***10*** |
| ***4.- On-line zerbitzua antolatzeko modua (10 puntu)*** | ***10*** | ***8*** |
| ***Puntuak guztira (50 puntu)*** | ***48*** | ***48*** |

*Kontratazio-plataforman iragarri zen bezala, gaurko egunean 10,00etan, jendaurreko ekitaldian C artxibo elektronikoa ireki da: eskaintza ekonomikoa (2. eranskina,).*

*- Lizitazioa prezioa: 69.121,64 €.*

*- Berme epea: 6 hilabete harrera egiten denetik kontatuta.*

*- Gehieneko azpikontratazioaren portzentajea: ez dago.*

*<u>Irizpide automatikoen balorazioa</u>:*

*Eskaintza ekonomikoa: 50 puntu.*

*Tal y como se publicitó en la plataforma de contratación el día de hoy a las 10,00 horas se ha procedido en acto público a la apertura del archivo electrónico C: Oferta económica (Anexo 2 oferta económica).*

*- Precio de licitación: 69.121,64 €.*

*- Plazo de garantía: 6 meses desde que se recepción e el servicio.*

*- Porcentaje máximo de subcontratación: no existe.*

*<u>Valoración criterios automáticos</u>:*

*La oferta económica: 50 puntos.*

*Aurkeztutako eskaintzak ondorengoak izan dira:*

*Lizitatzaileek atal horretan lortutako puntuazioa guztira honako hau da:*

*Las ofertas presentadas han sido las siguientes:*

*La puntuación obtenida en este apartado es la siguiente:*

| **Lizitatzaileak / Licitadoras** | **Eskaintza ekonomikoa / proposición económica** |
|---|---|
| *TTAKUN KULTUR ELKARTEA* | *58.933,68 €* |
| *URTXINTXA ATSEDENALDIKO HEZITZAILEEN ESKOLA* | *66.100,00 €* |

*Aurkeztutako eskaintzen balorazio egin ondoren, emaitza ondorengo da:*

*Efectuada la valoración de las ofertas presentadas, el resultado es el siguiente:*

| **Licitadores**<br><br>**Lizitatzaileak** | **Memoria teknikoa**<br><br>**Memoria técnica** | **Eskaintza ekonomikoa**<br><br>**Oferta económica** | **Puntuaketa guztira**<br><br>**Puntuación total** |
|---|---|---|---|
| *TTAKUN KULTUR ELKARTEA* | *48,00* | *50,00* | ***98,00*** |
| *URTXINTXA ATSEDENALDIKO HEZITZAILEEN ESKOLA* | *48,00* | *44,58* | *92,58* |

*Horren ondorioz, Kontratazio Mahaiak kontratazio organoari (Gobernu Batzordea) ondorengo erabaki proposamena egiten dio:*

*Lehenik*. ***kirol elkarteen esparruan euskararen erabileraren sustapen zerbitzua*** *hutsik uztea, ez delako lizitatzailerik aurkeztu.*

*Bigarren*. ***Euskara hizkuntza errefortzu zerbitzua, A sorta,*** *TTAKUN KULTUR ELKARTEAri esleitzea, puntuazio gehien lortu duen enpresa delako.*

*Hirugarren. Esleipena baldintza-pleguen eta enpresak aurkeztutako eskaintzaren arabera egiten da.*

*En consecuencia, la Mesa de Contratación efectúa la siguiente propuesta de acuerdo al órgano de contratación (Junta de Gobierno Local)*

*Primero. Dejar desierto el* ***servicio de fomento del uso del euskera en el ámbito de las asociaciones deportivas****, por falta de licitadores.*

*Segundo. Adjudicar el* ***servicio de refuerzo lingüístico del euskara****, lote A, a TTAKUN KULTUR ELKARTEA, por ser la empresa que mayor puntuación ha obtenido.*

*Tercero. La adjudicación se efectúa con arreglo a los pliegos de condiciones y a la oferta presentada por la empresa.*

*Laugarren. Esleipen prezioa: 58.933,68 €/urteko*

*Bosgarren. Egikaritze epea: 2 urte eta urtebeteko beste bi luzapeneko aukera.*

*Seigarren. Berme epea: 6 hilabete harrera egiten denetik kontatuta.*

*Zazpigarren. Kontratuaren arduraduna, hizkuntza politika azpi arloko arduradun teknikoa izango da.*

*Zortzigarrena. Esleipendunari eskatzea hamar egun balioduneko epean, errekerimendua egin eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, dokumentazio hau aurkez dezala:*

- *2.946,68 €ko behin betiko fidantza.*
- *Erantzukizun zibileko poliza, 300.000,00 eurokoa.*
- *Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria, EJZn alta emanda.*
- *Fundazio eta Elkarteen Erregistroan Elkartea inskribatuta egotearen agiria, Estatutuak eta ordezkariaren ahalmen agiria.*

*Bederatzigarren. Fidantza aurkeztu ondoren, behin betiko esleipena egingo da. Horretarako, Alkateari ahalmena emango zaio, eta, ondoren, dagokion administrazio-kontratua sinatu beharko da.*"

*Cuarto. Precio de adjudicación: 58.933,68 €/año.*

*Quinto. Plazo de ejecución: 2 años con posibilidad de dos prórrogas de un año cada una.*

*Sexto. Plazo de garantía: 6 meses desde que se recepcione el servicio.*

*Séptimo Se designa como responsable del contrato a la responsable técnica del subárea de política lingüística.*

*Octavo.. Requerir al adjudicatario para que en un plazo de diez días hábiles a contar a partir del siguiente al del requerimiento, aporte la siguiente documentación:*

- *Fianza definitiva por valor de 2.946,68 €.*
- *Póliza de responsabilidad civil por importe de 300.000,00 €.*
- *Certificado de estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y para con la Seguridad Social, alta en IAE.*
- *Certificado de inscripción de la Asociación en el Registro de Asociaciones y Fundaciones, Estatutos sociales y poder del representante legal.*

*Noveno. Tras presentar la fianza, se efectuará la adjudicación definitiva para lo cual se facultará a la Alcaldesa y posteriormente se deberá firmar el correspondiente contrato administrativo. "*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

En el turno de intervenciones los asistentes han formulado las siguientes opiniones:

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu), esan du bere jarrera abstentzioarena izango dela garbi ikusten ez duelako bi enpresek memoria teknikoan puntu berdinak izatea, nahiz eta berak osotasunean ez ezagutu aurkeztutako memorien edukia, baina kontuan izanda, adibidez, URTXINTXA ATSEDENALDIKO HEZITZAILEEN ESKOLAk fitxak landuz proposatzen duela zerbitzua ematea eta aldiz, TTAKUN KULTUR ELKARTEAK, ez, ez dela oso ondo zehazten biek

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu) manifiesta que su postura será de abstención porque no ve claro que ambas empresas tengan los mismos puntos en la memoria técnica, aunque ella no conoce en su totalidad el contenido de las memorias presentadas. Pero teniendo en cuenta que, por ejemplo, URTXINTXA ATSEDENALDIKO HEZITZAILEEN ESKOLA propone que se preste el servicio trabajando fichas y, por el contrario, TTAKUN KULTUR ELKARTEA no, no se concreta

puntu berdinak jasotzearen arrazoiak zeintzuk diren.

el motivo de que los dos reciban el mismo número de puntos.

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), esan du ez dela sartu behar emandako memoria teknikoa baloratzen, langileen profesionaltasunaz sinisten duelako eta kontratazio mahaiak ere ontzat eman duelako.

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) señala que no va a entrar a valorar la memoria técnica entregada porque cree en la profesionalidad del personal y porque la mesa de contratación también lo ha dado por bueno.

Alkateak berretsi egin du alderdi sozialistako zinegotziak esandakoa eta horren ondorioz proposamenaren alde azaldu da.

La Sra. Alcaldesa se ratifica en lo manifestado por la concejala socialista y se muestra a favor de la propuesta.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Tras realizar la votación se ha obtenido el siguiente resultado:

Aldeko botoak: 3 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)
Aurkako botoak: 0
Abstentzioak: 1 (Beasaingo EH Bildu)
Etorri gabea: 1 (EAJ-PNV)

Votos a favor: 3 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)
Votos en contra: 0
Abstenciones: 1 (Beasaingo EH Bildu)
Ausentes: 1 (EAJ-PNV)

Beraz, gehiengo osoarekin onartu da proposamena.

En consecuencia, se ha aprobado la propuesta por la mayoría absoluta.

- IGARTZAKO ERROTAKO ATERPETXEAREN ERABILERA, IPARRALDEKO SANTIAGO BIDEAREN FUNDAZIOARI LAGATZEA. HITZARMENA BERRITZEA. 2021BOCU0015

- CESIÓN DE USO DEL ALBERGUE SITO EN EL MOLINO DE IGARTZA A LA FUNDACIÓN CAMINO DE SANTIAGO DEL NORTE. RENOVACIÓN DEL CONVENIO.

Ezagutzera eman da, Herritarrak batzordeko proposamena, hain zuzen ere, Iparraldeko Santiago Bidearen Fundazioarekin ondorengo hitzarmena sinatzeari buruzko, Igartzako errotan dagoen erromeseentzako aterpetxearen erabilera lagatzeari buruzkoa:

Se da a conocer, la propuesta de la comisión de Ciudadanía, en relación con la firma del siguiente convenio con la Fundación Camino de Santiago de Iparralde, relativo a la cesión del uso del albergue para peregrinos situado en el molino de Igartza:

"*Alde batetik, LEIRE ARTOLA UGALDE andrea, Beasaingo Udalaren ordez. Ekintza honetarako baimena, Toki Araubidearen Oinarriak erregulatzen dituen Legearen 21,1b) artikuluak eta 2020ko abenduaren 22ko Udalbatza Osoko erabakiak ematen dio.*

*"De una parte Dña. LEIRE ARTOLA UGALDE, en nombre y representación del Ayuntamiento de Beasain. Se encuentra facultado para este acto, en virtud del art. 21,1b) de la Ley Reguladora de Bases de Régimen Local y por el acuerdo del Ayuntamiento Pleno el 22 de diciembre de 2020.*

*Bestetik, FERNANDO IMAZ MARROQUIN, 15.111.463A na duenak, IPARRALDEKO SANTIAGO BIDEAREN FUNDAZIOAREN*

*De otra parte, Dn. FERNANDO IMAZ MARROQUIN, titular del DNI nº 15.111.463-A en representación de la FUNDACIÓN CAMINO DE*

ordezkari eta Lehendakari gisa. Horretarako ahalmena, Donostiako Fermin Lizarazu Notario aurrean 2008ko abenduaren 22an egindako Fundazio-eratze eskriturak, ematen dio. Protokolo zenbakia: 4.999. Aipatutako Fundazioa, Donostiako Urbieta kalean, 2an sotoan helbideratuta dago eta G-20993564 IFK du.

ESTIPULAZIOEKIN

Lehenik. Beasaingo Udalak, Igartzako Errotaren erromesen aterpetxerako egokitutako lehenengo oinaren eta ganbararen erabilera, "Iparraldeko Santiago Bidearen Fundazioari" lagatzen dio, helburu horretarako.

Hitzarmena sinatzen denetik, horretarako egokitutako eremua, logelak, komunak, dutxak eta biltegia duena, altzariekin eta erabilerarako behar diren tresna eta zerbitzuekin entregatzen da.

Bigarren. Lagapena baldintza hauekin ematen da:

1.- Epea: lagapenaren epea 10 urtekoa izango da, dokumentu hau sinatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, baina beti ere, adostutako baldintzak betetzen badira, lagapenaren helburua barne. Horrela ez bada, Udalak, Fundazioari aldez aurretik audientzia emanda, lagapen-erabakia bertan behera utzi dezake, kalte-ordainik eman gabe.

2.- Gastuak: Iparraldeko Santiago Bidearen Fundazioak bere gain hartzen duen kudeaketa doanik izango da eta erromesari borondatez eman nahi duena bakarrik eskatuko zaio. Lortzen diren diru-sarrerak telefono-gastuak eta instalazioak erabiltzeagatik egin beharreko konponketak txikiak ordaintzeko erabiliko dira. Nolanahi ere, Fundazioaren kontura izango dira.

Udalaren betebeharra izango da, argi-indarra, ura, gasa, interneta etab., ordaintzea eta higiezina mantentzea eta kontserbatzea.

SANTIAGO DEL NORTE, domiciliada en San Sebastián, c/Urbieta nº 2 – sótano, con CIF G-20993564, y en calidad de Presidente, según escritura de Constitución de fecha 22 de diciembre de 2.008 otorgada ante el Notario de San Sebastián D. Fermín Lizarazu bajo el nº 4.999 de su protocolo.

ESTIPULACIONES

Primera. El Ayuntamiento de Beasain cede el uso de la planta primera y desván del Molino de Igartza habilitado para albergue de peregrinos, a la "Fundación Camino de Santiago del Norte", para destinarlo al objeto indicado.

El espacio habilitado para ello que comprende, dormitorios, aseos, duchas y almacén, se entrega totalmente amueblado y con el ajuar y los servicios suficientes para su uso desde el momento de la firma del presente convenio.

Segunda. La cesión queda sujeta a las siguientes condiciones:

1.- Plazo: el plazo de la cesión será de 10 años a contar del día siguiente al de la firma del presente documento, siempre que se cumplan las condiciones pactadas y el destino para el que se cede. En caso contrario, el Ayuntamiento, previa audiencia del cesionario, podría rescindir el acuerdo de cesión, sin abono de ninguna indemnización.

2.- Gastos: la gestión del albergue por parte de la "Fundación Camino de Santiago del Norte" será totalmente gratuita y sólo se solicitará al peregrino la voluntad, depositada anónimamente en una hucha. La recaudación que se obtenga se empleará para sufragar los gastos de teléfono y de las pequeñas reparaciones que por el uso de las instalaciones se aconsejen o precisen y que, en todo caso, serán a cuenta de la Fundación.

El Ayuntamiento se hará cargo del gasto de luz, agua, gas, internet, etc., así como del mantenimiento del inmueble y de las obras de conservación del mismo.

*3.- Putzu septikoa: Udalak bere gain hartuko du horren garbiketa, beharren araberakoa izango dena.*

*4.- Erromeseriaren arreta: Fundazioaren ardura izango da, erromeseriari arreta egitea, behar duen informazioa eta kredentzialak ematea.*

*5.- Kudeaketa: aterpetxearen kudeaketa, Fundazioari dagokio. Horretarako:*

- *Fundazioak, Igartzako errotako aterpetxerako arduraduna izendatuko du. Arduradun honen lana ondorengoa izango da:*
    - *Erromesei ospitaleko asistentzia eskaintzea, horretarako bere borondatez laguntzeko prest dagoen pertsonalaren bitartez.*
    - *Aterpetxea garbitzea.*
    - *Beasaingo Udalaren solaskide izatea.*
- *Aseguru zibila kontratatuko du eta sinatutako polizaren kopia aurkeztuko du, dokumentu hau sinatzean.*
- *Urteroko jardueraren Memoria Udalari aurkeztuko dio.*

*6.- Egutegia eta irekitzeko eta ixteko ordutegia: aterpetxea apirilaren hasieratik (edo aurretik Aste Santua lehenago bada) irailaren bukaera arte irekita egongo da eta ordutegia, 16,00etatik 22,00ra izango da. Erromesek aterpetxetik, goizeko 8,00etan irtengo dira.*

*Dena dela, erromesen demandak hala eskatzen badu, egutegia eta ordutegia aldatu daiteke, Udalari kontu emanda.*

*7.- Jangela-zerbitzua: aterpetxean ez dira ez gosaririk, ez bazkaririk ezta afaririk ere emango, baina bai bertan kontsumitzea egongo da erromes bakoitzak ekarritako elikagaiak; horretarako, mikrohuin labe bat eta hozkailu bat erromesen eskura jarriko dira. Sukaldeko tresneria edo*

*3.- Fosa séptica**:** El Ayuntamiento se encargará de la limpieza de la misma en función de las necesidades.*

*4.- Atención del peregrino: la Fundación se encargará de atender al peregrino, de facilitar la información que precise y de expedir las credenciales.*

*5.- Gestión**:** la gestión del albergue propiamente dicha corresponderá en todo momento a la Fundación. Para ello:*

- *La Fundación nombrará a una persona responsable para el albergue del Molino de Igartza, quien se hará cargo:*
    - *De la asistencia hospitalaria al peregrino a través del personal que voluntariamente se preste para ello.*
    - *De la limpieza del albergue.*
    - *De actuar de interlocutor con el Ayuntamiento de Beasain.*
- *Concertará un seguro de responsabilidad civil, y presentará copia de la póliza suscrita, a la firma del presente documento.*
- *Presentará en el Ayuntamiento una Memoria anual de la actividad.*

*6.- Calendario y horario de apertura y cierre**:** el albergue permanecerá abierto desde primeros del mes de abril (o con anterioridad si la Semana Santa se celebra antes) hasta finales del mes de septiembre y el horario será de 16,00 a 22,00 horas con salida de los peregrinos a las 8,00 horas.*

*No obstante, si la demanda de peregrinos lo aconseja, se podrá modificar el calendario y el horario, dando cuenta de ello al Ayuntamiento.*

*7.- Servicio de comedor**:** el albergue no prestará servicio de desayunos, comidas ni cenas, aunque si se podrá consumir en él alimentos que cada peregrino aporte, disponiendo de un microondas y un frigorífico para uso del peregrino. De existir*

*bestelako elektragailurik izatekotan, ostatu emaileak erabiltzeko izango da.*

*algún otro tipo de electrodoméstico o menaje será para uso del hospitalero.*

*Horrekin lortu nahi dena zera da: Beasaingo ostalaritza sektorearekin konpetentzia izatea eta bide batez, tokiko merkataritza sustatzea eta erromesek hiri barnea bisitatzea eta ezagutzea bultzatzea.*

*Con ello se trata de evitar que exista competencia para el sector hostelero de Beasain, revitalizando de esta manera el comercio local y fomentando que el casco urbano sea visitado y conocido por los peregrinos.*

*Hirugarren. Jarraipen batzordea eratuko da eta bertan, Beasaingo Udaleko Kultura saileko politikaria eta teknikariaz gain, Igartzako Monumentu Multzoaren arduraduna eta Iparraldeko Santiago Bidearen Fundazioaren Lehendakariak edota Beasaingo aterpetxearen arduradunak parte hartuko dute.*

*Tercera. Se creará una comisión de seguimiento en la que participarán, además del personal político y técnico del área de Cultura del Ayto. de Beasain, la persona responsable de la empresa que gestione el Conjunto Monumental de Igartza y quien presida la Fundación Camino de Santiago del Norte, y/o la persona responsable del albergue de Beasain.*

*Laugarren. Beasaingo Udalak, aterpetxearen berri emateko ardura hartzen du, ohikoak diren baliabideen bidez eta zehazki Web orrian argitaratuz.*

*Cuarta. El Ayuntamiento de Beasain, se compromete a publicitar el albergue del Molino de Igartza, dando buena cuenta de ello en los canales habituales y en concreto a través de su página Web.*

*Eta guztiaren adostasun frogatzat, bildutakoek dokumentu hau bikoizturik sinatu dute goian aipatutako data eta lekuan.*"

*Y en prueba de conformidad con cuanto antecede, los comparecientes firman el presente convenio por duplicado ejemplar en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.*"

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

En el turno de intervenciones los asistestes han formulado las siguientes opiniones:

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu), bere adostasuna azaldu du baina galdetu du ea itxita dagoen hilabeteetan beste erabilera emateko aukerarik ez dagoen.

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu) manifiesta su conformidad pero pregunta si en los meses que está cerrado no se le puede dar otro uso.

Alkateak ihardetsi dio esanez inoiz monoziklokoei eta beste norbaiti ere utzi zaiola erabiltzen eta aztertu egin beharko litzatekeela aste santutik irailaren amaiera arte irekita dagoen epealditik kanpo zein erabilera eman litzaiokeen.

La Sra. Alcaldesa le responde que en alguna ocasión se ha dejado utilizar a los de los monociclos y a otras personas y que habría que analizar qué uso se le puede dar fuera del periodo que está abierto desde Semana Santa hasta finales de septiembre.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

Sometida a votación, se aprueba la propuesta por unanimidad.

**4.- LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENAK**:

**4.- PROPUESTAS DE LA COMISIÓN DE TERRITORIO**:

- OBRA ZIURTAGIRIA: IGARTZA OLETA KALEAN ORIA IBAIAREN GAINEAN DAGOEN OINEZKOENTZAKO ESPALOIA ALDATZEKO OBREN HIRUGARRENGO ZIURTAGIRIA. 2018PROB0006

CERTIFICACIÓN DE OBRAS: CERTIFICACIÓN TERCERA DE LAS OBRAS DE MODIFICACIÓN DE LA ACERA PEATONAL EXISTENTE SOBRE EL RÍO ORIA EN IGARTZA OLETA.

Aho batez onartu da da, “Igartza Oleta kalean Oria ibaiaren gainean dagoen oinezkoentzako espaloia aldatzeko” obrei buruzko obren 3. ziurtagiria, 130.221,22 €koa (BEZ barne).

Se aprueba por unanimidad la certificación nº 3 de las obras de "modificación de acera peatonal en la calle Igartza Oleta sobre el río Oria" por importe de 130.221,22 €(IVA incluido).

- OBRA ZIURTAGIRIA: DOLAREA PARKETA BIRMOLDATZEKO OBREI BURUZKOA BIGARRENGO ZIURTAGIRIA. 2019PROB0006

- CERTIFICACIÓN DE OBRAS: CERTIFICACIÓN SEGUNDA DE LAS OBRAS DE REMODELACIÓN DEL PARQUE DOLAREA.

Aho batez onartu da, “Dolarea parkea birmoldatzeko” obrei buruzko obren 2. ziurtagiria, 104.654,46 €koa (BEZ barne).

Se aprueba por unanimidad la certificación nº 2 de las obras de "remodelación del parque Dolarea" por importe de 104.654,46 €(IVA incluido).

- OBRA ZIURTAGIRIA: NAFARROA ETORBIDEA ETA ORIAMENDI KALEEN ARTEKO IGOGAILUAREN OBREI BURUZKOA LEHENENGO ZIURTAGIRIA. 2020PROB0003

- CERTIFICACIÓN DE OBRAS: CERTIFICACIÓN PRIMERA DE LAS OBRAS DEL ASCENSOR ENTRE NAFARROA ETORBIDEA Y ORIAMENDI KALEA.

Aho batez onartu da, “Nafarroa Etorbidea eta Oriamendi kalea artean igogailu publikoa instalatzeari eta berrurbanizatzearekiko” obrei buruzko obren 1. ziurtagiria, 27.147,79 €koa (BEZ barne).

Se aprueba por unanimidad la certificación nº 1 de las obras de "instalación y reurbanización de ascensor público entre Nafarroa Etorbidea y calle Oriamendi" por importe de 27.147,79 €(IVA incluido).

- BEASAINGO ARAU SUBSIDIARIOETAKO ERREKARTE I EREMUKO UE-KO 32.1 EGIKARITZE-UNITATEKO ERREPARTZELAZIO PROIEKTUAN ONDORIOZTATUTAKO R.1.3 PARTZELA BESTERENTZEA ARAUTZEN DUENA. UDALAREN LURZORU-ONDAREAN SARTUTA DAGO ETA, BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK SUSTATZEKO DA. ESLEIPENA. 2021IDBO0013

- ENAJENACIÓN DE LA PARCELA RESULTANTE R.1.3 DEL PROYECTO DE REPARCELACIÓN DE LA UNIDAD DE EJECUCIÓN UE, 32.1 DEL ÁREA ERREKARTE I, DE LAS NORMAS SUBSIDIARIAS DE BEASAIN, INCLUIDA EN EL PATRIMONIO MUNICIPAL DEL SUELO PARA LA PROMOCIÓN DE VIVIENDA DE PROTECCIÓN OFICIAL. ADJUDICACIÓN.

Ezagutzera eman da kontratazio mahaiaren proposamena, hots:

Se ha dado a conocer la siguiente propuesta de la mesa de contratación:

"*1.- 2021-09-06. Kontratazio Mahaiaren bilera non lizitazioa parte hartzea onartzen zaion, aurkeztutako lizitatzaile bakarrari, hau da, GOIERRISUKIA S.L.ri, kaudimen baldintzak betetzen dituelako.*

*2.- 2021-06-18. Kontratazio Mahaiaren bilera non ontzat ematen da, B artxibo elektronikoari dagokion dokumentazioarekikko emandako txostena, judizio bidez ebaluatzekoa dena.*

*3.- C artxibo elektronikoa, hau da, automatikoki formula bidez baloratuko den proposamen ekonomikoa irekitzeko ekintza publikoari ekin zaio eta aurkeztutako proposamena, ondorengoa izan da*:

***1.-** 9-06-2021. Reunión de la mesa de contratación en la que se admite a participar en la licitación por cumplir los requisitos de solvencia a la única empresa licitadora presentada, esto es: GOIERRISUKIA S.L.*

***2.-** 18-06-2021. Reunión de la mesa de contratación en la que se da el visto bueno al informe técnico sobre la documentación del archivo electrónico B evaluable mediante juicios de valor.*

***3.-** Se procede al acto público de apertura del archivo electrónico C, relativo a la proposición económica valorable automáticamente mediante fórmulas. La proposición presentada ha sido la siguiente:*

| Lizitazio prezioa | Lizitatzailea | Proposamen ekonomikoa |
|---|---|---|
| 732.750,22 € | GOIERRISUKIA S.L. | 733.500,00 € |

*4.- 2021-06-21. Txosten teknikoa ondorengoa adieraziz: egiaztatzen da Goierrisukia SLk aurkeztutako proposamenak gainditu egiten duela ezarritako lizitazioaren gutxieneko tasa, 50 puntuko balorazioa eman zaio formulen bidez automatikoki ebalua daitezkeen irizpideei dagokienez (eskaintza ekonomikoa), eta justifikatutzat jotzen da indarreko araudian lurzoruaren eragin-balioari dagokionez ezarritako mugak betetzen dituela*.

*Lizitatzaileak lortutako puntuazioa guztira, ondorengoa da:*

**4.-** 21-06-2021. Informe técnico en el que se concluye que: *la propuesta presentada por Goierrisukia S.L. supera el tipo mínimo de licitación establecido, se le otorga una valoración de 50 puntos, respecto a los criterios evaluables automáticamente mediante fórmulas (oferta económica) y se considera justificado el cumplimiento de las limitaciones en cuanto al valor de repercusión de suelo establecidas en la normativa vigente*.

*La puntuación total obtenida por la licitadora es la siguiente:*

| Lizitatzailea | Memoria teknikoa | Proposamen ekonomikoa | GUZTIRA |
|---|---|---|---|
| | | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| GOIERRISUKIA S.L. | 28,5 p. | 50 p. | 78,5 p. |

*Horren ondorioz, Kontratazio Mahaiak kontratazio organoari (Tokiko Gobernu Batzordea), ondorengo proposamena egiten dio:*

*Lehenik. Beasaingo Arau Subsidiarioetako Errekarte I eremuko UE-ko 32.1 egikaritze-unitateko Errepartzelazio Proiektuan ondorioztatutako R.1.3 partzela besterentzeari buruzko kontratua, GOIERRISUKIA S.L.ri esleitzea.*

*Bigarren. Kontratua prezio honetan esleitzen da: ZAZPIEHUN ETA HOGEITA HIRU MILA ETA BOSTEHUN EURO (733.500,00 €) gehi BEZ.*

*Hirugarren. Lehiaketa behin betiko esleitzeko erabakiaren jakinarazpena jasotzen denetik hilabeteko epean, behin-behineko fidantza gisa eratutako gordailuaren eta esleipen-prezioaren arteko aldea ordaindu beharko du esleipendunak, hau da: 696.862,49 € Ondoren, salerosketa-kontratua formalizatuko da, eta, ondoren, eskritura publikoa sinatuko da.*

*Laugarren. Esleipendunaren kontura izango dira besterentzea eskritura publiko bihurtzearen ondoriozko gastuak, erregistroan inskribatzearen ondoriozkoak eta aldi baterako okupazioen ondoriozko kalte-ordainak. Era berean, eskualdatzeak eragindako zerga eta prezio publiko guztiak ordaindu beharko ditu, baita dagokion BEZa ere, hala badagokio.*

*Bosgarren. Besterentze-prezioan sartzen da lurzatian gauza daitekeen aprobetxamendu guztia, eta ez da aplikatuko aprobetxamenduaren lagapena."*

*En consecuencia la Mesa de Contratación somete al órgano de contratación, Junta de Gobierno Local, la siguiente propuesta:*

*Primero. Adjudicar el contrato de enajenación de la parcela resultante R.1.3 del Proyecto de Reparcelación de la Unidad de Ejecución UE, 32.1 del área Errekarte I, de las Normas Subsidiarias de Beasain a GOIERRISUKIA S.L.*

*Segundo. Se adjudica el contrato al precio de SETECIENTOS TREINTA Y TRES MIL QUiNIENTOS EUROS (733.500,00 €) más IVA.*

*Tercero. En el plazo de un mes a contar desde la recepción de la notificación del acuerdo de adjudicación definitiva del concurso, se deberá efectuar por el adjudicatario el pago de la diferencia entre el depósito constituido como fianza provisional y el precio de adjudicación, esto es: 696.862,49 €. Posteriormente se formalizará el contrato de compraventa y seguidamente se elevará a escritura pública.*

*Cuarto. Serán de cuenta del adjudicatario los gastos originados de la elevación a escritura pública de la enajenación a su favor, los de inscripción registral, las indemnizaciones por ocupaciones temporales, viniendo obligado igualmente al abono de todos los tributos y precios públicos que origine la transmisión, incluido en su caso el IVA correspondiente.*

*Quinto. En el precio de enajenación queda incluido todo el aprovechamiento materializable en la parcela, sin que resulte de aplicación la cesión de aprovechamiento."*

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu) esan du bere botoa ezezkoa izango dela, lehen ere horrela bozkatu zuelako.

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu) dice que su voto será contrario porque antes lo votó así.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak 3 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)
Aurkako botoak: 1 (Beasaingo EH Bildu)

Tras realizar la votación se ha obtenido el siguiente resultado:
Votos a favor: 3 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)
Votos en contra: 1 (Beasaingo EH Bildu)

Abstentzioak: 0
Etorri gabea: 1 (EAJ-PNV)

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da proposamena.

## 5.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean honelako informazioa eman da:

ERREKARTEKO ETXEBIZITZA TASATUAK
Ezagutzera eman da, 32.1 unitateko egikaritzeko R.1 lursailean, hiru azpi partzela daudela, bata etxebizitza libreak egiteko, bestea etxebizitza tasatuak egiteko eta hirugarrena eta aurreko puntuan aipatutakoa babes ofizialeko etxebizitzak egiteko.
Sustatzaileak eskatu du etxebizitza tasatuak egiteko lizentzia eta baita ere etxebizitza-tasatu kalifikazioa. Aldi berean udalari proposatzen zion etxebizitza horiek esleitzeko oinarriak onartzea.

Idazkariak esan du, Lurzoru legearen arabera udal-etxebizitza tasatuak izateko, udal ordenantza onartua egin behar dela. Beasaingo Udalak horrelako ordenantzarik ez duenez, ezin du etxebizitza-tasatuen kalifikaziorik eman eta ezta ere ez dagokio horiek esleitzeko oinarriak onartzeko.

Horren ondorioz, eraikitzen diren etxebizitza horiek gobernuko etxebizitza tasatuak izatera pasatuko dira eta Eusko Jaurlaritzak emango die kalifikazioa. Esleitze prozesuari berriz esan kasu horietarako Eusko Jaurlaritzak ezarrita duela horretarako protokoloa.

KIROLDEDIGO INSTALAZIOAK KUDEATZEKO KONTRATUA

Ezagutzera eman da, gaur bertan sinatu dela kontratua INSTALACIONES DEPORTIVAS MASQUATRO, S.L. eta SOCIEDAD BEASAIN LANTZEN, S.A.U. EN LIQUIDACIÓN artean, atzo iraungi zelako orain dela hamabost urte sinatutakoa.
Ezaugarrien artean, ondorengoak aipatu:
1.- Kontratatzaileak kontratistari ordainduko dion prezioa ustiategiaren defizitari dagokiona izango da, halakorik balego. Bertan, lortutako diru-sarreren %

Abstenciones: 0
Ausentes: 1 (EAJ-PNV)

En consecuencia, se ha aprobado la propuesta con la mayoría absoluta.

## 5.- RUEGOS Y PREGUNTAS

En el apartado de ruegos y preguntas se han formulado las siguientes:

VIVIENDAS TASADAS DE ERREKARTE

Se da cuenta de que en la parcela R.1 para la ejecución de la unidad 32.1 existen tres subparcelas, una para viviendas libres, otra para viviendas tasadas y la tercera mencionada en el punto anterior para viviendas de protección oficial.

El promotor ha solicitado licencia para la construcción de viviendas tasadas, así como la calificación de viviendas tasadas. Al mismo tiempo proponía al ayuntamiento la aprobación de las bases para la adjudicación de dichas viviendas.
La Secretaria dice que la Ley del Suelo exige que se apruebe una Ordenanza municipal para tener viviendas tasadas municipales. Dado que el Ayuntamiento de Beasain no dispone de esta ordenanza, no puede dar la calificación de vivienda tasada ni le corresponde aprobar las bases para su adjudicación.
En consecuencia, estas viviendas que se construyan pasarán a ser viviendas tasadas del Gobierno y serán calificadas por el Gobierno Vasco. En cuanto al proceso de adjudicación decir que para estos casos el Gobierno Vasco tiene establecido el protocolo correspondiente.

CONTRATO DE GESTIÓN DE LAS INSTALACIONES DEL POLIDEPORTIVO

Se da a conocer que hoy mismo se ha firmado el contrato entre INSTALACIONES DEPORTIVAS MASQUATRO, S.L. y SOCIEDAD BEASAIN LANTZEN, S.A.U. EN LIQUIDACIÓN, porque ayer se extinguió lo firmado hace quince años.
Entre sus características se incluyen:
1.- El precio que el contratante abonará al contratista será, en su caso, el correspondiente al déficit de la explotación. En ella se ingresarán el 4%

4 (gastu orokorrei dagokiena) eta mozkin industrialaren % 5 sartuko dira.

de los ingresos obtenidos, correspondientes a gastos generales, y el 5% del beneficio industrial.

2.- Kontratistak kiroldegiko zerbitzuak emateagatik kobratu beharreko tarifak gaur egun indarrean daudenak izango dira. Kontratatzaileak 2022rako horiek eguneratzea erabaki ahal izango du, EAEko KPIa aplikatuta.

2.- Las tarifas a cobrar por el contratista por la prestación de los servicios del polideportivo serán las actualmente vigentes. El contratante podrá acordar su actualización para el año 2022 aplicando el IPC de la CAPV.

3.- Klub, elkarte eta federatuek agiri teknikoan adierazitako moduan erabiliko dituzte kirol-instalazioak, baina doakoa izango da.

3. - Los clubes, asociaciones y federados utilizarán las instalaciones deportivas en la forma indicada en el pliego técnico, pero será gratuito.

4.- Ez da gastu gisa onartuko galdu-irabazien kontuaren defizita zenbatzeari dagokionez langileekin lotutako kalte-ordainak.

4.- No se admitirán como gasto las indemnizaciones relacionadas con el personal a efectos del cómputo del déficit de la cuenta de pérdidas y ganancias.

5.- Kontratu hau gauzatzeko epea urtebetekoa izango da, sinatzen denetik zenbatzen hasita (indarrean jartzen den eguna). Ezin izango da luzatu.

5.- El plazo de ejecución del presente contrato será de un año a contar desde la fecha de su firma (fecha de entrada en vigor). No se podrá prorrogar.

Adierazi da, urtebeteko epe hori erabiliko dela lizitazio berria prestatzeko eta horretarako hainbat xehetasun landu eta aztertu beha direla, hala nola, bideragarritasun azterlana, tarifen azpiegitura, herriko elkarteek ordaindu beharrekoa, kontratu-mota zein izango den (zerbitzuen-emakida edo zerbitzuak ematea), etea, etab.

Se indica que este plazo de un año se utilizará para la preparación de la nueva licitación, para lo que se deberán trabajar y analizar diversos aspectos como el estudio de viabilidad, la infraestructura tarifaria, el coste de las asociaciones locales, el tipo de contrato (concesión de servicios o prestación de servicios), etc.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zazpietan amaitu da eta nik, idazkari naizen, akta hau idatzi eta sinatu dut.

Y sin más asuntos que tratar, la sesión ha finalizado a las diecinueve horas, y yo como Secretaria doy fe extendiéndose la presente acta.